

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.  
El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

## Iñigo Urkullu Renteria

### Bilbao, 2020ko uztailaren 4a

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lehentasun bat da Euzko Alderdi Jeltzalearen Programan. Guztion egitekoa da, gutako bakoitzarena. Etxetik hasi eta gizarte harreman esparru guztietara hedatuz: hezkuntza, lana, aisia... Lanean jarraituko dugu gizarte bidezkoago bat eraikitzen. Non emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuta egongo den. Non emakumeen aurkako indarkeria desagertuko den.

Horretarako, egungo berdintasun-legearen aldaketa onartzea proposatzen dugu, berdintasunaren arloan egindako aurrerapena sendotzeko eta indartzeko erronka berriei aurre egiteko, eta indarkeria matxistaren aurka hobeto borrokatzeko. Emakumeen aurkako indarkeria desberdintasunaren adierazpen latzena eta mingarriena da. Berdintasunean aurrera egitea indarkeria matxistaren aurkako borrokan aurrera egitea da. Helburu horrekin, bost konpromiso hauek garatuko ditugu:

1. **Herri ituna:** berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren aldeko lana herrialdeko itun handi bihurtu nahi dugu. Erakundeen, enpresen, komunikabideen eta gizarte-eragile guztien arteko talde-lana bultzatuz.
2. **Indarkeria matxistarik gabeko gizarte baterantz aurrera egiteko konpromisoa.** Konpromisoa hartzen dugu Eusko Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta arretan egiten duen inbertsioa % 30 handitzeko.
3. **Hezkuntza eta Hezikidetza.** Hezkuntza-arloan berdintasunaren aldeko lana indartuko dugu, "Nahiko" programa eta Hezikidetza planaren garapenaren bidez.
4. **Zaintza erdigunean kokatu,** kontziliazio erantzukidea bultzatuz eta zerbitzuak indartuz. Zero-Hiru urte bitarteko arreta eta mendeko pertsonei arreta emateko zerbitzuak indartuko ditugu.
5. **Soldata arrakala murriztu.** Estrategia horrekin jarraitzea da gure konpromisoa eta emakumeen autonomi ekonomikoa bultzatuko dugu.

Berdintasuna funtsezko helburua da Nazio Batuen 2030 Estrategian. Baita Jaurlaritzaren Euskadi Basque Country Estrategian ere. Berdintasuna herri helburu bat da. Ez dago gizarte kohesiorik berdintasunik gabe. Gure helburua da genero-berdintasun handiena duten Europako 8 herrialdeen artean kokatzea. Hau da Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Lehendakariaren lehen mailako helburua.

La igualdad es un objetivo de primer nivel en el Programa del Partido Nacionalista Vasco. Nos corresponde a todas y todos. Empezando desde el hogar y llegando a todos

los ámbitos relacionales: educación, mundo laboral, tiempo libre... Considerar el trabajo por la igualdad como un trabajo común, de equipo, es la condición necesaria para una igualdad de oportunidades real. Es la base de la cohesión social.

Nos comprometemos a priorizar la aprobación en el Parlamento Vasco de la modificación de la ley para igualdad. Nuestro objetivo es consolidar el avance en materia de igualdad, dar respuesta a los nuevos desafíos y seguir dando pasos firmes contra la violencia machista.

Destaco cinco compromisos del Partido Nacionalista Vasco:

1. **Pacto de país.** Convertir el trabajo por la igualdad y por una vida libre de violencia machista en un gran pacto de país. Reforzar las alianzas entre instituciones, empresas, medios de comunicación y todos los agentes sociales.
2. **Compromiso para avanzar hacia una sociedad sin violencia machista.** Nos comprometemos a incrementar un 30% la inversión del Gobierno Vasco en prevención y atención ante la violencia contra las mujeres.
3. **Educación y Coeducación.** Reforzar el trabajo en igualdad en el ámbito educativo desde edades tempranas a través del programa "Nahiko" y la implementación del Plan para la coeducación.
4. **Situar los cuidados en el centro.** Impulsar la conciliación. Reforzar la atención de 0 a 3 años y los servicios de atención a personas dependientes. Explorar nuevas vías para que más hombres se dediquen a los cuidados de la infancia y las personas dependientes.
5. **Potenciar la Estrategia contra la brecha salarial.** Nuestro compromiso es reforzar esta vía e impulsar la autonomía económica de las mujeres.

La igualdad es un elemento clave en la Agenda 2030 de Naciones Unidas y la Estrategia Euskadi Basque Country. La igualdad debe formar parte de la tarjeta de presentación de Euskadi en el mundo. No hay cohesión social, no hay desarrollo sostenible, sin igualdad. Nuestro objetivo es situarnos entre los 8 Países europeos con mayor igualdad de género. Es un objetivo de País. Un objetivo con mayúsculas.